



COVID-19

GIPUZKOAN ONARTUTAKO ZERGA NEURRIAK

OHIKO GALDERAK

2.2 bertsioa. – 2020ko apirilaren 2a

Agiri honetan jasotzen dira [martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu Arauak](#), COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga izaerako neurri jakin batzuk onartzen dituenak (aurrerantzean COVID-19aren Foru Dekretu Araua), eta [apirilaren 1eko 136/2020 Foru Aginduak](#), Covid-19aren ondorioz zergapeko jakin batzuentzat hiru hilabeteko autolikidazioak eta aitorten ez-aldizkako, informatibo eta laburtzaileak aurkeztu eta ordaintzeko epea zabaltzen duenak, (aurrerantzean COVID-19aren Foru Agindua), onartzen dituzten neurriak.

1. BERSTRIOAREKIKO GALDERA BERRIAK EDO BERRIKUSIAK

1. ALDERDI OROKORRAK.

- 1.1. COVID-19aren foru dekretu araua eta foru agindua
Galdera berrikusiak: 1 eta 6.
- 1.3. Telematikoki eta paperean aurkeztea. Eragindako kolektiboak.
Galdera berria: 20.
- 1.4. Kolektibo bereziak. Zerrenda eta definizioa.
Galdera berriak: 21tik 30era.

2. AUTOLIKIDAZIOAK ETA AITORPENAK AURKEZTEKO EPEAK.

- 2.1. Alderdi orokorrak.
Galdera berrikusiak: 35 eta 36.
- 2.4. 2020ko martxoaren 25eko epemugak: atxikipenak, BEZa, zerga bereziak eta beste batzuk. Epeak zabaltzea.
Galdera berriak: 44, eta 46tik 49ra.
Galdera berrikusia: 45.
- 2.5. Zerga eta obligazio ez-aldizkakoak: eskualdaketen zerga, oinordetzen zerga, JEZa, OHZ, zentsu aitortpena eta beste batzuk.
Galdera berriak: 50 eta 51.
- 2.6. Beste zerga batzuk: sozietateak, ez-egoiliarak eta PFEZa.
Galdera berrikusiak: 54, 55 eta 56.
- 2.7. Betebehar formalak: BIHa eta aitorten informatibo eta laburbiltzaileak.
Galdera berrikusiak: 60 eta 61.



AURKIBIDEA

1. ALDERDI OROKORRAK.....	4
1.1. COVID-19aren foru dekretu araua eta foru agindua.....	4
1.2. Epeak zabaltzea.....	5
1.3. Telematikoki eta paperean aurkeztea. Eragindako kolektiboak.....	7
1.4. Kolektibo bereziak. Zerrenda eta definizioa.....	8
1.5. Jakinarazpen elektronikoak.....	11
2. AUTOLIKIDAZIOAK ETA AITORPENAK AURKEZTEKO EPEAK.....	11
2.1. Alderdi orokorrak.....	11
2.2. 2020ko martxoaren 25eko epemugak: atxikipenak, BEZa, zerga bereziak eta beste batzuk. Epeak zabaltzea.....	13
2.3. 2020ko apirilaren 25eko eta maiatzaren 25eko hileko epemugak: atxikipenak, BEZa, zerga bereziak eta beste batzuk. Epeak zabaltzea.....	15
2.4. 2020ko apirilaren 25eko hiru hilabeteko epemugak: atxikipenak, BEZa, zerga bereziak eta jokoaren gaineko zergak. Epeak zabaltzea.....	15
2.5. Zerga eta obligazio ez-aldizkakoak: eskualdaketen zerga, oinordetzen zerga, JEZa, OHZ, zentsu aitorpena eta beste batzuk.....	18
2.6. Beste zerga batzuk: sozietateak, ez-egoiliarak eta PFEZa.....	20
2.7. Betebehar formalak: BIHa eta aitorpen informatibo eta laburbiltzaileak.....	22
3. PFEZ. JARDUERA EKONOMIKOEN ORDAINKETA ZATIKATUAK.....	23
4. GERORAPENAK ETA ZATIKAPENAK.....	24
4.1. Onartuta dauden gerorapenak, zatikapenak eta akordio bereziak.....	24
4.2. Zatikapenen modalitate berria.....	25
5. ZERGA PROZEDURAK.....	26
5.1. Alderdi komunak. Izapide batzuen epeak luzatzea.....	26
5.2. Alderdi komunak. Administrazioak egindako behin-behineko likidazioak ordaintzeko epeak luzatzea.....	28
5.3. Alderdi komunak. Iraupena, iraungipena eta preskripzioa.....	28
5.4. Interesdunak eskatuta hasitako prozedurak.....	29
5.5. Errekurtsoak eta erreklamazioak.....	30
5.6. Premiamenduzko prozedura.....	30



5.7. Ikuskapen prozedura.	32
5.8. Zehapen prozedura.....	33
6. UDAL ZERGAK.	35



1. ALDERDI OROKORRAK.

1.1. COVID-19aren foru dekretu araua eta foru agindua.

1. Gipuzkoan zer araudik erregulatzen ditu zerga arloan COVID-19aren krisiaren ondorioz eratorritako berezitasunak? **BERRIKUSIA**

Bakarrik zerga araudia bakarrik izango da, betiere COVID-19aren Foru Dekretu Arauan eta Foru Aginduan jasotako berezitasunak kontuan hartuta.

Beraz, zerga zuzenbidearen izaera berezia dela eta, ez zaie aplikatuko ez 2019-03-18an GAOn argitaratutako Diputatuen Kontseiluaren Erabakia eta ez martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duena.

Dena den, 463/2020 Errege Dekretuak eraginda geldituko dira jakinarazpen elektronikoak (Ikus 33. galdera).

[Aurkibidera itzuli.](#)

2. Zer zerga arlotan da aplikagarri COVID-19aren Foru Dekretu Araua?

COVID-19aren Foru Dekretu Araua Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga arloan nahiz Gipuzkoako toki entitateen arloan aplikatuko da.

Udal zergei buruzko informazioa Ohiko Galdera hauen [6. apartatuan](#) kontsultatu daiteke.

[Aurkibidera itzuli.](#)

3. Nori eragiten dio COVID-19aren Foru Dekretu Arauak eta Foru Aginduak?

Hasiera batean, Gipuzkoako pertsona fisiko eta juridiko guztiei eragiten die. Halere, jarduera ekonomikoak egiten dituztenei eragingo die zuzenago, zeren eta une honetako zergaldian aurkeztu beharreko autolikidazio gehienak lotuta baitaude jarduera ekonomikoak egitearekin (atxikipenak, BEZa...).

[Aurkibidera itzuli.](#)

4. Nagusiki, zer aldaketa dakar?

Honela laburtu ditzakegu:

- Zabaldu egiten dira laster aurkeztekoak eta, hala badagokio, sartzekoak diren autolikidazioak, aitordenak eta Berehalako Informazio Hornidura (BIH) aurkezteko epeak.
- Zabaldu egiten dira zergadunak hainbat prozeduretan Administrazioari erantzuteko dituen epeak.
- Zabaldu egiten dira alderdi batek hasitako prozedurei hasiera emateko epeak, bai eta berraztertze errekurtsoak jartzeko epeak eta Foru Auzitegian errekurtsoak eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezteko epeak ere.
- Gerorapenei buruzko hainbat berezitasun arautzen dira, gerorapenak indarrean egon edo berriak izan.



- Gelditu egiten dira ondasun higiezinaren gaineko enkanteak eta exekuzioak.
- Salbuetsi egiten da PFEZaren ordainketa geroratu eta zatikatu jakin batzuk ordaintzeko betebeharretik, eta zatikapen modalitate berezi bat sortzen da.
- Abuztura atzeratzen da ondasun higiezinaren gaineko zergaren kanpaina.

[Aurkibidera itzuli.](#)

5. Noiz arte da aplikagarri COVID-19aren Foru Dekretu Araua eta Foru Agindua?

Hasiera batean 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era arte da aplikagarri.

Dena den, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ahalmena du, beharrezkoa bada, neurriak denboran luzatzeko.

[Aurkibidera itzuli.](#)

6. Zeintzuk dira COVID-19aren Foru Dekretu Arauaren eta Foru Aginduaren erreferentziako datak?

BERRIKUSIA

Denborazko bi mugarri bereizten dira:

- 2020ko apirilaren 27a. Data horrek aitortzen du telematikoki aurkeztera behartuta dauden kolektibo jakin batzuei eragiten die.
- 2020ko ekainaren 1a. Data horrek zergadun guztiei eragiten die, nahiz eta kontu desberdinetarako izan.

[Aurkibidera itzuli.](#)

1.2. Epeak zabaltzea.

7. Epe guztiak aldatuko dira?

Ez. Halere, epe ugari aldatzen dira, hala nola:

- Autolikidazioak eta aitortzen aurkeztu eta hainbat obligazio formal betetzeko epeak.
- Administrazioak egindako behin-behineko likidazioak ordaintzeko epeak.
- Errekerimendu eta tramite jakin batzuei erantzuteko epeak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

8. Berekin zer dakar epe bat zabaltzeak? Epe bat etetearen berdina al da?

Ez, epeak etetea eta zabaltzea kontu desberdinak dira. COVID-19aren Foru Dekretu Arauak epe jakin batzuk zabaltzen dituenez, epe horiek hasierako jatorrizko datan hasiko dira eta, horretarako aurreikusitako datan amaitu beharrean, COVID-19aren Foru Dekretu Arauak finkatzen duen datan amaituko dira.



Adibidez; BEZaren hileko autolikidazioa aurkezteko epea martxoaren 1ean hasi eta 25ean amaituko da. Bada, epeak zabaldu ondoren, epe hori martxoaren 1ean hasi eta apirilaren 27an amaituko da, eta aitorpena epe horren edozein momentutan aurkeztu ahal izango da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

9. Beharrezkoa al da epeak zabaltzeko eskatzea?

Ez, defektuz aplikatuko da epeen zabalpena. Dena den, zergapekoak epeak agortu gabe bete ditzake bere obligazioak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

10. Zer gertatzen da dagoeneko autolikidazioa epe barruan aurkeztu bada?

Zerga obligazioa betetzat hartuko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

11. Zer gertatzen da dagoeneko tramite edo ordainketa bat epe barruan egin bada?

Tramitea edo ordainketa betetzat hartuko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

12. Ordaintzeko autolikidazio bat aurkeztu dut. Diru sarreraren ordainketa horretarako zabaldu den epea bukatu aurretik egin al dezaket?

Bai. Zergabidea web plataforman, ordainketa gutuna lortu dezakezu edo online ordainketa pasabidea erabili dezakezu, diru sarreraren dataren aurretik, autolikidazioa ordaintzeko helbideratzera jo beharrean.

[Aurkibidera itzuli.](#)

13. 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean lehenagoko mugaeguna duen epe bati dagokion autolikidazio bat aurkezten badut, hau da, aitorpen bat epez kanpo aurkezten badut (adibidez, 2018ko errenta aitorpena), ordaintzeko epea ere zabaltzen al zait?

Ez, ez zaizu epea zabaltzen. Eta diru sarrera erregulariki helbideratuko da hari dagokion banku zikloan, COVID-19aren Foru Dekretu Arauaren aparteko neurriek eragin gabe.

[Aurkibidera itzuli.](#)

14. COVID-19aren Foru Dekretu Arauan jasotako epeen zabalpenak berekin dakar Gipuzkoako Foru Ogasunak ez duela tramiterik egingo martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean?

Oro har, Gipuzkoako Foru Ogasunak ez du tramiterik egingo prozedura horietan. Dena den, ezinbestekoak diren tramiteak egin ditzake.

[Aurkibidera itzuli.](#)



1.3. Telematikoki eta paperean aurkeztea. Eragindako kolektiboak.

15. Non erregulatzen dira Administrazioarekin elektronikoki harremana izatera behartutako kolektiboak?

Kolektibo horiek [ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan](#), erregulatuta daude. Foru agindu horren bidez, arautu egiten da Gipuzkoako lurralde historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoki erabiltzeko obligazioa, eta hura 2017ko ekainaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

[Aurkibidera itzuli.](#)

16. Nor dago behartuta bere autolikidazio eta aitortzen telematikoki aurkeztera?

Honako pertsonak eta entitate hauek:

- Pertsona juridikoak.
- Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
- Diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak.
- Administrazioarekin elektronikoki harremana izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak.
- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak, establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenean, eta, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 24.2 eta 38. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan daudenean.
- Ordezkeri profesional diren pertsonak edo entitateak, beren izenean zein haien ordezkatuenean jarduten dutenean, baita ordezkatu horiek aurreko apartatuetan sartuta ez daudenean ere. Atal honetan sartuta daude zerga kudeaketako funtzioak betetzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatu duten entitate publikoak edo pribatuak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

17. Nork aurkeztu ditzake paperean bere autolikidazioak eta aitortzen?

Aurreko atalean sartuta ez dauden zergapekoak. Dena den, beren borondatez elektronikoki aurkeztu ditzakete.

[Aurkibidera itzuli.](#)

18. Nire aitortzen telematikoki aurkezten ditut borondatez, nahiz eta horretara behartuta ez egon. Zer epe eragiten didate?

COVID-19aren Foru Dekretu Arauaren ondorioetarako, Zerga Administrazioarekin elektronikoki harremana izatera behartuta ez dagoen zergapekotzat hartuko zaituzte, eta, beraz, autolikidazioak edo aitortzen elektronikoki aurkeztera behartuta egongo ez bazina bezala aplikatuko zaizkizu erregelak. Beste modu batera esanda, aitortzen aurkezteko epea ekainaren 1a izango da.

[Aurkibidera itzuli.](#)



19. Ez nago behartuta aitortzen telematikoki aurkeztera, baina nire ordezkari profesionalak telematikoki aurkezten ditu nire aitortzen. Zer epe eragiten didate?

COVID-19aren Foru Dekretu Arauaren ondorioetarako, Zerga Administrazioarekin elektronikoki harremana izatera behartuta ez dagoen zergapekotzat hartuko zaituzte, eta, beraz, autolikidazioak edo aitortzen elektronikoki aurkeztera behartuta egongo ez bazina bezala aplikatuko zaizkizu erregelak. Beste modu batera esanda, aitortzen aurkezteko epea ekainaren 1a izango da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

20. Zergadun gisa, ez nago behartuta Zerga Administrazioarekin bitarteko elektronikoez harremana izatera. Zerga eredu bat aurkezteko araudiak telematikoki aurkeztera behartzen banau, nola eragiten didate epeek? **BERRIA**

Bitarteko elektronikoez harremana izatera behartuta daudenen epe bera izango duzu.

[Aurkibidera itzuli.](#)

1.4. Kolektibo bereziak. Zerrenda eta definizioa.

21. Bada kolektibo bereziren bat aitortzen telematikoki aurkeztera behartuta egon arren haiek aurkezteko epe luzeagoa duena? **BERRIA**

Bai, badira kolektibo berezi batzuk COVID-19aren Foru Aginduaren arabera epe luzeagoa dutenak.

Kolektibo berezi horiek ondorengo galderan zerrendatuta agertzen dira, eta 1.4 atal honetan haiei buruzko edukia garatzen da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

22. Zeintzuk dira kolektibo berezi horiek? **BERRIA**

Honako hauek:

- Pertsona fisikoak.
- Jarduera ekonomikoak egiten dituzten errenta esleipeneko araubideko entitateak, salbu beren bazkide, heredero, komunero edo partaide guztiak pertsona juridikoak badira (ikus 25. galdera).
- Jabetza horizontaleko erregimenean dauden jabeen komunitateak.
- Testamentua emateko ahalorde baten zain dauden herentziak.
- Mikroenpresak eta enpresa txikiak (ikus 23., 24., 26. eta 27. galderak).
- Ondare sozietateak (ikus 28. galdera).
- Partzialki salbuetsitako entitateak (ikus 29. galdera).
- Irabazi asmorik gabeko entitateak (ikus 30. galdera).

[Aurkibidera itzuli.](#)

23. Zer momentutan hartu behar dira kontuan aurreko galderan jasotako zirkunstantziak? **BERRIA**



Azken 4 zirkunstantzietarako, kontuan hartuko da aurkeztu den azken zergaldiko sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa (mikroenpresak, enpresa txikiak, ondare sozietateak, partzialki salbuetsitako entitateak eta irabazi asmorik gabeko entitateak).

[Aurkibidera itzuli.](#)

24. Eta inoiz ere sozietateen gaineko zergaren aitortpena aurkeztu ez duen sorrera berriko enpresa bat bada? **BERRIA**

Kasu horretan, kolektibo berezi horien barruan dagoela hartuko da kontuan, eta kasu guztietan epeak zabalduko zaizkio.

[Aurkibidera itzuli.](#)

25. Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateak. Zeintzuk dira? **BERRIA**

Ondasun komunitateak, sozietate zibilak, herentzia onartugabeak eta, nortasun juridikorik gabeak izanik, zergapetu daitezkeen unitate ekonomiko edo ondare bereizi bat eratzen duten gainerako entitateak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

26. Mikroenpresak. Zer baldintza bete behar dute mikroenpresa izateko? **BERRIA**

Oro har, honako hauek:

- Ustiapen ekonomiko bat egitea.
- Beren aktiboa edo eragiketa bolumena ez izatea 2 milioi eurotik gorakoa.
- Beren plantillaren batez bestekoa 10 langiletik beherakoa izatea.
- Beste enpresa batzuek ez izatea, ez zuzenean ez zeharka, beren paraidetzaren 100eko 25 edo gehiago, baldin eta enpresa horiek ez badute lehenago aipatutako baldintzetako bateren bat betetzen, non eta enpresa horiek ez diren kapital arriskuko sozietateak edo funtsak.

Ildo beretik, gainera, kontuan hartu beharko dituzte Sozietateen gaineko Zergaren 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan jasotako zirkunstantziak eta baldintzak.

(Ikus 23. eta 24. galderak).

[Aurkibidera itzuli.](#)

27. Enpresa txikiak. Zer baldintza bete behar dira enpresa txikia izateko? **BERRIA**

- Ustiapen ekonomiko bat egitea.
- Beren aktiboa edo eragiketa bolumena ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa.
- Beren plantillaren batez bestekoa 50 langiletik beherakoa izatea.
- Beste enpresa batzuek ez izatea, ez zuzenean ez zeharka, beren paraidetzaren 100eko 25 edo gehiago, baldin eta enpresa horiek ez badute lehenago aipatutako baldintzetako bateren bat betetzen, non eta enpresa horiek ez diren kapital arriskuko sozietateak edo funtsak.



Ildo beretik, gainera, kontuan hartu beharko dituzte Sozietateen gaineko Zergarfen 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan jasotako zirkunstantziak eta baldintzak.

(Ikus 23. eta 24. galderak).

[Aurkibidera itzuli.](#)

28. Ondare sozietateak. Zer baldintza bete behar dira ondare sozietatea izateko? **BERRIA**

Oro har, honako hauek:

- Zergaldiko laurogeita hamar egunetan gutxienez, beren aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatua izatea edo jarduera ekonomikoei atxikita ez egotea.
- Zergaldian zehar entitatearen kapitalean 100eko 75eko partaidetza edo boto eskubideen 100eko 75eko portzentajea gutxienez duten bazkideak hauetako bat izatea: edo pertsona fisikoak, edo ondare sozietatetzat jotzen diren entitateak, edo pertsona fisiko eta entitate horiekin loturik dauden beste entitate batzuk.
- Gutxienez entitatearen 100eko 80 nagusiki aurrezpenaren errentetatik etortzea.

Ildo beretik, kontuan hartu beharko dira Sozietateen gaineko Zergaren 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan jasotako zirkunstantziak eta baldintzak.

(Ikus 23. eta 24. galderak).

[Aurkibidera itzuli.](#)

29. Partzialki salbuetsitako entitateak. Zeintzuk dira? **BERRIA**

- Irabazizkoak ez diren erakundeen elkarteak, entitateak eta erakundeak.
- Kooperatiba elkarte, federazio eta konfederazioak.
- Elkargo profesionalak, enpresarien eta profesionalen elkarteak, ganbera ofizialak, arrantzaleen kofradiak, langileen sindikatuak eta alderdi politikoak.
- Enplegua sustatzeko funtsak.

Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten mutuak.

(Ikus 23. eta 24. galderak).

[Aurkibidera itzuli.](#)

30. Zeintzuk dira irabazi asmorik gabeko entitateak? **BERRIA**

Nagusiki, onura publikokoak deklaraturako fundazioak eta elkarteak dira, bai eta oso gutxitan gertatzen den beste mota bateko entitateak.

Entitate guztiek bete beharrekoak dira apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, jasotako baldintzak eta zirkunstantziak.

(Ikus 23. eta 24. galderak).

[Aurkibidera itzuli.](#)



1.5. Jakinarazpen elektronikoak.

31. Jarraitu al dezaket jakinarazpenak eta komunikazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jasotzen 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean?

Bai. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoak normaltasunez funtzionatzen jarraitzen du, eta zure esku jartzen diren jakinarazpenak eta komunikazioak jaso daitezke. Kasu horretan, tramitea gauzatu dela ulertuko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

32. Jakinarazpenak eta komunikazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jasotzen jarraitu al daiteke 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean?

Bai, eta jakinarazpena balio osoz egindakotzat hartuko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

33. Jakinarazpen bat bidali didate Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora. Zer gertatzen da ezin badut hamar eguneko epean jaso?

Jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jasotzeko 10 eguneko epea etenda dagoela ulertzen da, hala xedatzen baitu hirugarren xedapen gehigarrian martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duenak.

Horrek berekin dakar:

- Jakinarazpen elektroniko bat 2020ko martxoaren 14aren aurretik bidali bada eta egun horretan 10 eguneko epea bukatuta ez bazegoen, 10 eguneko epe horrek alarma egoera amaitu eta biharamunetik aurrera jarraituko du. Epea ez da berriro hasiko behin alarma egoera amaituta, baizik eta alarma egoeraren deklarazioak epean etena sortu zuen egunean jarraituko du bere konputuak.
- Jakinarazpen elektroniko bat alarma egoeraren barruan bidali bazaizu, 10 eguneko epea alarma egoera amaitu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

2. AUTOLIKIDAZIOAK ETA AITORPENAK AURKEZTEKO EPEAK.

2.1. Alderdi orokorrak.

34. Autolikidazioak eta aitortpenak aurkeztu eta, hala badagokio, ordaintzeko epeak berdin zabalduko da martxoan gertatzen diren epemuga guztietarako?

Orokorrean bai, nahiz eta salbuespen baten bat badagoen. Ondorengo galderan enumerazio labur bat jasota dago. Aurrerago, 2. apartatu honen barruan, zerrenda zehatzago bat aurkitu dezakezu, gaien eta zergen arabera.



[Aurkibidera itzuli.](#)

35. Laburbilduz, zer aurkezpen epe daude COVID-19aren Foru Dekretu Arauak eraginda?

BERRIKUSIA

Zabaldut egiten dira autolikidazio eta aitortzen hauek aurkeztu eta, hala badagokio, ordaintzeko epeak:

- Hileko autolikidazioak, epemuga 2020ko martxoaren 25ean dutenak.
- Hiruhileko autolikidazioak, epemuga 2020ko apirilaren 25ean dutenak, kolektibo berezi batzuentzat.
- Kolektibo jakin batzuentzat epemuga 2020ko apirilaren 25a duten hiru hilabeteko autolikidazioak.
- 720 eredia - Atzerrian dauden ondasunak eta eskubideak.
- 349 eredia - Batasun barruko eskurapenak.
- Sozietateen zergaren autolikidazioak eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren gaineko zergaren autolikidazioak, urte naturalarekin bat ez datorren zergaldia duten zergadun batzuei dagozkienak.
- Autolikidazio eta aitortzen ez-aldizkakoak: eskualdaketen zergaren eta oinordetzen zergaren autolikidazioak, eta beste batzuk.
- 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarteko epemuga duten aitortzen informatiboak eta laburtzaileak.
- Berehalako Informazio Hornidurako informazioaren bidalketa.
- Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kanpaina (ez da epea zabaltzen, baizik eta kanpaina geroratu egiten da).

[Aurkibidera itzuli.](#)

36. Zer zergari eragiten dio epeen zabalpenak? **BERRIKUSIA**

Hauek dira nagusiki:

- Balio erantsiaren gaineko zerga.
- PFEZaren, sozietateen eta ez-egoiliarren atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga.
- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga.
- Sozietateak eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren, haien zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean.
- Zentsu aitortpenak edo beste informazio betebeharrak batzuk, eta aitortzen laburtzaileak.
- Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia.
- Jokoaren gaineko zerga.



- Aseguru primen gaineko zerga.
- Zerga bereziak.
- Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga.

[Aurkibidera itzuli.](#)

2.2. 2020ko martxoaren 25eko epemugak: atxikipenak, BEZa, zerga bereziak eta beste batzuk. Epeak zabaltzea.

37. Atxikipenak eta konturako sarrerak, BEZa, zerga bereziak: otsaileko hileko kuota, 2020ko martxoaren 25era bitarteko epea duena. Zabaltzen al da aurkezpen eta sarrera epea?

Bai. Epea 2020ko martxoaren 25ean amaitzen denean, honela zabaltzen dira aurkezpen eta ordainketa epeak:

- Aitorpen **telematikoa** aurkeztera behartuta badago, epea 2020ko apirilaren 27ra arte zabaltzen da.

Helbideratzea behin aurkezpen epea amaitu eta gero egingo da. Dena den, lehenago ordaindu nahi duten zergapekoek honako hau egin dezakete: ordaintzeko modu bezala helbideratzea aukeratu ordez, Zergabidea web plataforma bitartez ordainketa gutun bat eskatu ahal dute edota ordainketako pasabidea erabili ahal izango dute.

- Ez badago behartuta aitorpena telematikoki aurkeztera eta, beraz, **paperean** aurkeztu badezake, aurkezpen eta ordainketa epea 2020ko ekainaren 1era arte zabaltzen bada.

Kasu horretan, ordainketa autolikidazioa aurkeztu aurretik edo hura aurkezterakoan egingo da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

38. Atxikipenak eta konturako sarrerak: otsaileko hileko kuota, 2020ko martxoaren 25era bitarteko epea duena. Zeintzuk dira ereduak?

Nagusiki honako hauek:

- 111 eredu. Atxikipenak eta konturako sarrerak lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gainean. Hileko autolikidazioa.
- 115 eredu. Atxikipenak eta konturako sarrerak ondasun higiezin hiritarren errentamenduaren edo berrerrentamenduaren etekinen gainean. Autolikidazioa.
- 117 eredu. Atxikipenak eta konturako sarrerak / Konturako ordainketa. Errentak edo ondare irabaziak: IKEN kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio eta partaidetzak eskualdatzea edo berreskuratzea eta harpidetza eskubideak eskualdatzea. Autolikidazioa.
- 123 eredu. Aitorpen-likidazioa. Kapital higigarriaren errenta eta etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak
- 124 eredu. Aitorpen-likidazioa. Aktibo finantzarioak eskualdatu, amortizatu, berreskuratu, trukatu edo bihurtzeagatik lortutako kapital higigarriaren errenten eta etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.



- 126 eredu. aitopen-likidazioa. Finantza erakundeetan zabalduko kontuetatik, aktibo finantzarioetan oinarritutakoak barne, eratorritako errenten eta kapital higikorren etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.
- 128 eredu. Aitopen-likidazioa. Kapitalizazio eragiketarik eta bizi edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik datozen kapital higigarriaren errenten edo etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.
- 126 eredu. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Aitopen arrunta.

[Aurkibidera itzuli.](#)

39. BEZa: otsaileko hileko kuota, 2020ko martxoaren 25era bitarteko epea duena. Zeintzuk dira ereduak?

Nagusiki honako hauek:

- 320 eredu. BEZaren hileko aitopen-likidazioa. Enpresa handiak.
- 322 eredu. Entitate taldea. Banakako eredu.
- 330 eredu. BEZaren autolikidazioa. Hileko itzulketen erregistroa.
- 353 eredu. Entitate taldea. Eredu bateratua.

[Aurkibidera itzuli.](#)

40. Zerga bereziak: otsaileko hileko kuota, 2020ko martxoaren 25era bitarteko epea duena. Zeintzuk dira ereduak?

Nagusiki honako hauek:

- 560 eredu. Elektrizitatearen gaineko zergaren aitopen-likidazioa.
- 561 eredu. Garagardoaren gaineko zergaren aitopen-likidazioa.
- 562 eredu. Tarteko produktuen gaineko zergaren aitopen-likidazioa.
- 563 eredu. Alkoholen eta edari deribatuen gaineko zergaren aitopen-likidazioa.
- 566 eredu. Tabako laboreen gaineko zergaren aitopen-likidazioa.
- 581 eredu. Hidrokarburoen gaineko zergaren aitopen-likidazioa.
- 554 eredu. Alkohol fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitopena.
- 555 eredu. Fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitopena. Tarteko produktuen gaineko zerga.
- 557 eredu. Edari deribatuen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitopena.
- 558 eredu. Garagardo fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitopena.
- 570 eredu. Hidrokarbuo fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitopena.
- 580 eredu. Tabako laboreen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitopena.
- 510 eredu. Europar Batasuneko beste estatuetatik jasotako eragiketen aitopena.



[Aurkibidera itzuli.](#)

41. Beste zerga batzuk: otsaileko hileko kuota. Zeintzuk dira ereduak?

Nagusiki honako hauek:

- 610 eredu. Egintza juridiko dokumentatuak. Kreditu entitateek negoziatutako ordainagiriak eta ordaindukoak.
- 430 eredu. Aseguru primen gaineko zergaren hileko aitorten-likidazioa.

[Aurkibidera itzuli.](#)

2.3. 2020ko apirilaren 25eko eta maiatzaren 25eko hileko epemugak: atxikipenak, BEZa, zerga bereziak eta beste batzuk. Epeak zabaltzea.

42. Atxikipenak eta konturako sarrerak, BEZa, zerga bereziak: martxo eta apirileko hileko kuota, hurrenez hurren 2020ko apirilaren 25era eta maiatzaren 25era bitarteko epea duena. Zabaltzen al da aurkezpen eta ordainketa epea?

Aurkezpen modalitatearen arabera:

- Aitorpen **telematikoa** aurkeztera behartuta badago, ez da epea zabaltzen. Helbideratzea aurkezpen epea amaitu eta gero egingo da.
 - Ez badago behartuta aitorpena telematikoki aurkeztera eta, beraz, **paperean** aurkeztu badezake, aurkezpen eta ordainketa epea 2020ko ekainaren 1era arte zabaltzen bada.
- Ordainketa autolikidazioa aurkeztu aurretik edo hura aurkezterakoan egin behar da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

43. Atxikipenak eta konturako sarrerak, BEZa, zerga bereziak: martxo eta apirileko hileko kuota, hurrenez hurren 2020ko apirilaren 25era eta maiatzaren 25era bitarteko epea duena. Zeintzuk dira ereduak?

Horretarako, ikus [38](#), [39](#), [40](#) eta [41](#) galderak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

2.4. 2020ko apirilaren 25eko hiru hilabeteko epemugak: atxikipenak, BEZa, zerga bereziak eta jokoaren gaineko zergak. Epeak zabaltzea.

44. Zabaldua gelditzen da 2020ko apirilaren 25a epemuga duten autolikidazioei (atxikipenak eta konturako sarrerak, BEZa, zerga bereziak eta jokoak) dagokien lehen hiruhilekoa aurkeztu eta ordaintzeko epea? **BERRIA**

Bai, zergadunak hauek direnean:



- Telematikoki aitortzera behartuta ez daudenak (ikus 16. eta 17. galderak, [1.3 atalean](#))
- Kolektibo berezi jakin batzuk: pertsona fisikoak, mikroenpresak, enpresa txikiak, eta beste batzuk. Kolektibo bereziak zein diren jakiteko, ikus 22. eta hurrengo galderak, [1.4. atalean](#).

[Aurkibidera itzuli.](#)

45. **Eta noiz arte zabaldu dira aurkeztu eta ordaintzeko epeak?** **BERRIKUSIA**

Aurkezpen modalitatearen arabera, eta kolektibo berezia den kontuan hartuta:

- Ez badago behartuta aitortzen telematikoki aurkeztera eta, beraz, paperean aurkeztu badezake, aurkezpen eta ordainketa epea 2020ko ekainaren 1era arte zabaltzen bada.

Ordainketa autolikidazioa aurkeztu aurretik edo hura aurkezterakoan egin behar da.

- Kolektibo berezien kasuan (ikus 22. eta hurrengo galderak, [1.4. atalean](#)), aitortzen aurkeztu eta, kasua bada, ordaintzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da, baita telematikoki aurkeztera behartuta daudenean ere.

Ordainketa helbideratze bitartez egingo da aurkezteko epea behin amaituta. Dena den, lehenago ordaindu nahi duten zergapekoek honako hau egin dezakete: ordaintzeko modu bezala helbideratzea aukeratu ordez, Zergabidea web plataforma bitartez ordainketa gutun bat eskatu ahal dute edota online ordainketako pasabidea erabili ahal izango dute.

- Aitorpen telematikoa aurkeztera behartuta dauden gainerako zergapekoentzat, epea ez da luzatzen.

Helbideratzea egingo da aurkezteko epea behin amaituta.

[Aurkibidera itzuli.](#)

46. **BEZa. Hiru hilabeteko ereduak. Zeintzuk dira ereduak?** **BERRIA**

Nagusiki, honako hauek:

- 300 ereduak - BEZaren hiruhilabeteko aitortzen-likidazioa. Erregimen orokorra.
- 308 ereduak - Itzultzeko eskaera.
- 310 ereduak - BEZaren hiruhilabeteko aitortzen-likidazioa. Erregimen erraztua.
- 341 ereduak - Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen bereziaren konpentsazio eskaera.
- 349 ereduak - EBko subjektu pasiboekin egindako eragiketen aitortzen laburtzailea.
- 368 ereduak - Telekomunikazio zerbitzuei BEZean aplikagarri zaien erregimen berezia.
- 370 ereduak - BEZaren hiruhilabeteko aitortzen-likidazioa. Erregimen orokorra eta erraztua.

[Aurkibidera itzuli.](#)

47. **Hiru hilabeteko atxikipenen eta konturako sarrerak. Zeintzuk dira ereduak?** **BERRIA**

Nagusiki, honako hauek:

- 110 ereduak - Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Hiruhilabeteko autolikidazioa.



- 115 eredia - Ondasun higiezin hiritarren errentamendu edo berrerrentamenduaren etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.
- 117 eredia - Autolikidazioa. Errentak edo ondare irabazien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak: IKEN kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio eta partaidetzak eskualdatzea edo berreskuratzea eta harpidetza eskubideak eskualdatzea..
- 123 eredia - Aitorpen-likidazioa. Kapital higigarriaren errenta eta etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak..
- 124 eredia - Aitorpen-likidazioa. Aktibo finantzarioak eskualdatu, amortizatu, berreskuratu, trukatu edo bihurtzeagatik lortutako kapital higigarriaren errenten eta etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.
- 126 eredia - Aitorpen-likidazioa. Finantza erakundeetan zabalduetako kontuetatik, aktibo finantzarioetan oinarritutakoak barne, eratorritako errenten eta kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.
- 128 eredia - Aitorpen-likidazioa. Kapitalizazio eragiketetatik eta bizitza edo elbarritasun aseguru kontratuetatik datozen errenten edo kapital higigarriaren etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak.
- 216 eredia - Aitorpen-likidazioa. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrek lortutako errenten gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak.
- 230 eredia - Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako sarrerak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

48. Zerga berezietako hiru hilabeteko ereduak. Zeintzuk dira? **BERRIA**

Nagusiki, honako hauek:

- 506 eredia - Itzulketa eskaera, produktuak gordailu fiskalean sartzeagatik.
- 507 eredia - Itzulketa eskaera, igorpen bermatuen sisteman.
- 508 eredia - Itzulketa eskaera, urrutiko salmenten sisteman.
- 521 eredia - Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Hiruhilekoan hornitutako lehengaien zerrenda.
- 524 eredia - Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga bereziak itzultzeko eskaera.
- 553 eredia - Ardoaren eta edari hartzituen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena.
- 560 eredia - Elektrizitatearen gaineko zergaren aitorpen-likidazioa.
- 572 eredia - Hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeko eskaera.

[Aurkibidera itzuli.](#)

49. Jokoaren gaineko zerga. 2020ko apirilaren 27ko epemuga duten hiru hilabeteko aitorpenak. Zeintzuk dira ereduak? **BERRIA**

Nagusiki, honako hauek:



- 40E eredu - Bingo elektronikoaren aitorten-likidazioa.
- 042 eredu - Aitorpen-likidazioa. Joko kasinoak.
- 048 eredu - Aitorpen-likidazioa. Apustu bidezko jokoak.
- 763 eredu - Aitorpen-likidazioa. Joko jardueren gaineko zerga, urtebeteko edo urte anitzeko jardueren kasuan

[Aurkibidera itzuli.](#)

2.5. Zerga eta obligazio ez-aldizkakoak: eskualdaketen zerga, oinordetzen zerga, JEZa, OHZ, zentsu aitortpena eta beste batzuk.

50. Zerga eta obligazio ez-aldizkakoak: zabaltzen al da aurkezpen eta, hala badagokio, ordainketa epea? **BERRIA**

Bai, zergadunak hauek direnean:

- Telematikoki aitortzera behartuta ez daudenak (ikus [16.](#) eta [17.](#) galderak, [1.3 atalean](#))
- Kolektibo berezi jakin batzuk: pertsona fisikoak, mikroenpresak, enpresa txikiak, eta beste batzuk. Kolektibo bereziak zein diren jakiteko, ikus [22.](#) eta hurrengo galderak, [1.4. atalean](#).

[Aurkibidera itzuli.](#)

51. Eta noiz arte luzatu dira aurkeztu eta ordaintzeko epeak? **BERRIA**

Aurkezpen modalitatearen arabera, eta kolektibo berezia den kontuan hartuta:

- Zergaduna ez badago aitorten telematikoa aurkeztera behartuta eta, beraz, paperean aurkeztu badezake, aitortpena aurkeztu eta, kasua bada, ordaintzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.

Ordainketa autolikidazioa aurkeztu aurretik edo hura aurkezterakoan egingo da.

- Kolektibo berezien kasuan (ikus [22.](#) eta hurrengo galderak, [1.4. atalean](#)), aitortpena aurkeztu eta, kasua bada, ordaintzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da, baita telematikoki aurkeztera behartuta daudenean ere.

Ordainketa helbideratze bitartez egingo da aurkezteko epea behin amaituta. Dena den, lehenago ordaindu nahi duten zergapekoek honako hau egin dezakete: ordaintzeko modu bezala helbideratzea aukeratu ordez, Zergabidea web plataforma bitartez ordainketa gutun bat eskatu ahal dute edota online ordainketako pasabidea erabili ahal izango dute.

- Aitorpen telematikoa aurkeztera behartuta dauden gainerako zergadunentzat, kasuaren arabera:
 - Aitortpena aurkezteko epea 2020ko martxoaren 14tik eta apirilaren 25era bitartean bukatzen bada, epea 2020ko apirilaren 27ra arte luzatuko da.
 - Aitortpena aurkezteko epea 2020ko apirilaren 26tik aurrera bukatzen bada, ez da aurkezteko epea luzatuko.

Helbideratzea egingo da aurkezteko epea behin amaituta.



[Aurkibidera itzuli.](#)

52. Zerga eta obligazio ez-aldizkakoak: zer zerga eta obligazio gelditzen dira eraginda?

Nagusiki, honako hauek:

- Zentsu betebeharrak.
- Ondare eskualdaketen gaineko zerga.
- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga.
- Sozietateen gaineko zerga.
- Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga, eta katastroa.
- Zenbait garraio bideren gaineko zerga berezia.

[Aurkibidera itzuli.](#)

53. Zerga eta obligazio ez-aldizkakoak: zer eredu dira eta zer eragiketa gelditzen dira eraginda?

Nagusiki honako hauek:

Zentsu betebeharren arloan:

- 030 eredu - Zergapekoen erroldan alta hartzeko eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko aitortpena.
- 034 eredu - BEZeant telekomunikazio zerbitzuen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena.
- 036 eredu - Zentsu aitortpena.
- 039 eredu - Entitate taldeen erregimen bereziaren inguruko datuen komunikazioa.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren arloan:

- 60A eredu - Egintza juridiko dokumentatuak. Agiri administratiboak eta notaritzakoak.
- 60S eredu - Aitorpen-likidazioa. Sozietate eragiketak.
- 60T eredu - Aitorpen-likidazioa. Ondare eskualdaketak.
- 620 eredu - Aitorpen-likidazioa. Ibilgailu erabilien salerosketa.
- 30A eredu - Merkataritza dokumentua.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren arloan:

- 670 eredu - Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga. Oinordetzak.
- 671 eredu - Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga. Dohaintzak.
- 672 eredu - Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga. Bizitza aseguruak.

Sozietateen gaineko zergaren arloan:



- 20 R eredia - Berregituratze operazioen komunikazioa.
- 228 eredia - Talde fiskalen buruzko jakinarazpena.

Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren gaineko zergaren arloan:

- 210 eredia - Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Aitorpen arrunta.
- 211 eredia - Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak - Atxikipena ondasun higiezin eskualdaketan.
- 002 eredia - Mugaldeko langileen erregistroa.

Ondasun higiezin gaineko zergaren eta katastroaren arloan:

- R-6 eredia - Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin landatarren titulartasunaren aldaketa.
- R-7 eredia - Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin landatarren bereizketa, zatiketa eta elkarketa.
- U-1 eredia - Ondasun higiezin gaineko zerga. Salbuespen eta hobari eskaera
- U-4 eredia - Ondasun higiezin gaineko zerga. Aitorpena obra berriagatik, zabalkuntzagatik, birgaitze osoagatik edo zatiketa horizontalarengatik
- U-6 eredia - Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin hiritarren titulartasunaren aldaketa.
- U-7 eredia - Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin hiritarren bereizketa, zatiketa eta elkarketa.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren arloan:

- 840 eredia - Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: jardueren aitorpena.
- 841 eredia - Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: jarduerari zeharka lotutako jardueraren aitorpena.

Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren arloan:

- 55 eredia - Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren aitorpen-likidazioa.

[Aurkibidera itzuli.](#)

2.6. Beste zerga batzuk: sozietateak, ez-egoiliarrak eta PFEZa.

54. **Sozietateen gaineko zergan, luzatu al da aitorpena aurkezteko eta ordaintzeko epea?** **BERRIKUSIA**

Bai, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean, hurrengo moduetan:

- Kolektibo berezien kasuan (ikus [22.](#) eta hurrengo galderak, [1.4. atalean](#)), autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen denean, epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.



- Gainerako zergadunen kasuan, kasuak kasu:
 - Autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 14tik apirilaren 25era bitartean amaitzen denean, epea 2020ko apirilaren 27ra arte luzatzen da.
 - Autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea 2020ko apirilaren 26tik aurrera amaitzen denean, ez da epea luzatzen.

Ereduak: 200 eta 220.

[Aurkibidera itzuli.](#)

55. Establezimendu iraunkorren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, luzatu al da aitortzeko eta ordaintzeko epea? **BERRIKUSIA**

Bai, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean, hurrengo moduetan:

- Kolektibo berezien kasuan (ikus [22.](#) eta hurrengo galderak, [1.4. atalean](#)), autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen denean, epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen da.
- Gainerako zergadunen kasuan, kasuak kasu:
 - Autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 14tik apirilaren 25era bitartean amaitzen denean, epea 2020ko apirilaren 27ra arte luzatzen da.
 - Autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea 2020ko apirilaren 26tik aurrera amaitzen denean, ez da epea luzatzen.

Ereduak: 200 eta 220.

[Aurkibidera itzuli.](#)

56. Jokoa gaineko tributuetan, luzatu al da autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea? **BERRIKUSIA**

Bai, baina modu desberdinean tributuen modalitatearen arabera.

- Epea luzatu da jokoaren jolas makinen edo aparatu automatikoen bitartez egiten den kasuetan, zeinetan 2020ko martxoaren 25ean amaitzen baitzen. Kasu horretan, 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da epea.

Eredua: 044 – Aitorpen-likidazioa. Makinen edo aparatu automatikoen jokoak.

- Gainerako modalitateetarako ere epea luzatu da, apirilaren 25ean aurkeztu beharreko beste hiru hilabeteko aitorpenekin batera (ikus [44.](#), [45.](#) eta [49.](#) Galderak).

[Aurkibidera itzuli.](#)

57. Errenta eta ondarea. Nola eragiten du aurtengo kanpainan COVID-19ari buruzko FDAk eta FAK?

COVID-19ari buruzko FDAk eta FAK ez dio eragiten errenta eta ondarea aitortzeko kanpainari.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsiko du, foru agindu bidez, haren iraupena.



Edonola ere, errenta eta ondarea aitortzeko kanpainari buruzko informazio guztia Ogasun eta Finantza Departamentuaren webguneko apartatu espezifikoan kontsulta daiteke, eta iragarrita egongo da bai apartatu horretan bai Gipuzkoako Foru Ogasunaren ohiko informazio kanaletan.

[Aurkibidera itzuli.](#)

2.7. Betebehar formalak: BIHa eta aitorten informatibo eta laburbiltzaileak.

58. Behartuta al nago Berehalako Informazio Hornidura (BIH) betetzera? Nola eragiten dio FDAk betebehar horri?

Berehalako Informazio Hornidurari (BIH) dagozkion fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko epeak, zehazki, 2020ko martxoaren 14tik 2020ko apirilaren 25era bitartean amaitzen direnak, 2020ko apirilaren 27ra arte luzatu dira.

[Aurkibidera itzuli.](#)

59. Berehalako Informazio Hornidurari (BIH) dagokion informazioa ohiko epean bidali dezaket nahiz eta epe luzapena onartu?

Bai, Berehalako Informazio Hornidurari (BIH) dagokion informazioa ohiko epean bidali dezakezu, 2020ko apirilaren 27ra itxaron gabe.

[Aurkibidera itzuli.](#)

60. 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean epemuga duten aitorten informatibo eta laburbiltzaileak. Luzatu al da epea? **BERRIKUSIA**

Bai, aurkezteko epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen bada, honela luzatu dira aitorten aurkezteko epeak:

- Telematikoki aurkeztera behartuta ez daudenentzat, 2020ko ekainaren 1era arte.
- Kolektibo berezientzat (ikus [22.](#) eta hurrengo galderak, [1.4. atalean](#)), baita aitorten telematikoki aurkeztera behartuta daudenean ere, 2020ko ekainaren 1era arte.
- Telematikoki aurkeztera behartuta dauden gainerako zergadunentzat, kasuak kasu:
 - Aitorten aurkezteko epea 2020ko martxoaren 14tik apirilaren 8ra bitartean amaitzen denean, 2020ko apirilaren 27ra arte.
 - Autolikidazioak aurkeztu epea 2020ko apirilaren 9tik aurrera amaitzen denean, ez da epea luzatzen.

[Aurkibidera itzuli.](#)

61. 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean epemuga duten aitorten informatibo eta laburbiltzaileak. Zeintzuk dira? **BERRIKUSIA**

Nagusiki honako hauek:

- 720 eredu – Atzerrian dauden ondasun eta eskubideen aitortpena.



- 349 eredia – EBko subjektu pasiboekin egindako eragiketen aitorten laburtzailea.
- 170 eredia – Kreditu edo zordunketa txartelen bidezko kobrantza sistemari atxikitako enpresaburu eta profesionalak egindako eragiketen urteko aitorten informatiboa.
- 171 eredia – Diru ezarpenei, funts erabilerei eta edozein agiriren kobrantzei buruzko urteko aitorten informatiboa.
- 189 eredia – Balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa.
- KAR eredia – Gasolio profesionalaren kasuan urtean egindako kilometroen aitortpena
- 512 eredia – Hidrokarburoen gaineko zerga. 2. tarifako produktuen hartzaileen urteko zerrenda.
- 511 eredia – Bideko salmenten prozeduran tasa murriztuarekin bidalitako produktuen emate orrien hileko zerrenda.
- 521 eredia – Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Hiruhilekoan hornitutako lehengaien zerrenda.
- 553 eredia – Ardo eta edari hartzituen fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena.
- 586 eredia – Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorten laburbiltzailea.

[Aurkibidera itzuli.](#)

3. PFEZ. JARDUERA EKONOMIKOEN ORDAINKETA ZATIKATUAK.

62. Autonomoa naiz eta ordainketa zatikatuak egiten ditut errenta zergan. Jarraitu behar al dut horiek egiten?

Bai, 130 eredia erabiliz, baina salbuespen gisa, 2020ko 1. eta 2. hiruhilekoetakoak ez dituzu egin beharko. Haien epemuga 2020ko maiatzaren 10ean eta abuztuaren 10ean amaitzen da, hurrenez hurren.

[Aurkibidera itzuli.](#)

63. Autonomoa naiz, ordainketa zatikatuak egiten ditut errenta zergan, eta helbideratuak dauzkat. Automatikoki kargatuko dizkidate?

Ez, 2020ko 1. eta 2. hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak ez zaizkizu helbideratuko, eta haien epemuga 2020ko maiatzaren 10ean eta abuztuaren 10ean amaituko da, hurrenez hurren.

[Aurkibidera itzuli.](#)

64. Ez al ditut bi ordainketa horiek egin behar? Baian beranduago egin beharko ditut ala ez ditut egin beharko?

Ordainketa hauek ez dituzu egin behar eta ez zaizkizu geroago eskatuko ere. Salbuespen gisa, bi ordainketa horiek egiteko betebeharretik salbuetsi zaizu. Ez da atzerapen bat, ezta epearen luzapen bat ere. Kontuan da aurten betebeharrak hori desagertu dela COVID-19ak sortu duen egoera dela eta.



[Aurkibidera itzuli.](#)

- 65. Autonomoa naiz, alarma egoera deklaratu duen errege dekretuak ez du mugatu nire jardueraren sektorea, eta sarrera erregularrak edukitzen ari naiz. PFEZ normal bat espero dut datorren urtean. Borondatez sartu al ditzaket 2020ko 1. eta 2. hiru hilabeteetako ordainketa zatikatuak?**

Bai, Zergabidearen bitartez zergadunen esku jarriko da 1. eta 2. hiru hilabeteetako 130 ereduak aurkezteko aukera, ohiko hasiera data jarrita (apirilaren 1etik maiatzaren 10era, eta uztailaren 1etik abuztuaren 10era, hurrenez hurren).

Beraz, 1. edota 2. hiru hilabeteetako ordainketa zatikatuen 130 ereduaren aitorpena aurkeztu dezakezu eta, kasu horretan, eta bakarrik kasu horretan, epe horietako telematikoki aurkezten diren aitorpenak ohi bezala helbideratuko dira.

[Aurkibidera itzuli.](#)

- 66. Baldin eta 2020ko 1. hiru hilabeteetako autolikidazio bat Zergabidearen bitartez aurkezten badut, derrigorrez 2. hiru hilabeteetako aurkeztu behar dut?**

Ez, nahi baduzu, hiru hilabeteetako autolikidazioa bakarrik aurkeztu dezakezu, edo bietakoak, edo horietako bat ere ez, zuk erabakitzen duzunaren arabera.

[Aurkibidera itzuli.](#)

4. GERORAPENAK ETA ZATIKAPENAK.

4.1. Onartuta dauden gerorapenak, zatikapenak eta akordio bereziak.

- 67. Gerorapen, zatikapen edo akordio berezi bat daukat indarrean. Hurrengo kuotak martxoaren 25ean du epemuga. Data horretan helbideratuko al zait ordainketa?**

Ez. 2020ko martxoaren 25eko epemugak hilabete bat atzeratzen dira, eta 2020ko apirilaren 27an helbideratuko dira.

[Aurkibidera itzuli.](#)

- 68. Gerorapen, zatikapen edo akordio berezi bat daukat indarrean. Hurrengo kuotak apirilaren 10ean du epemuga. Data horretan helbideratuko al zait ordainketa?**

Ez. 2020ko apirilaren 10eko epemugak hilabete bat atzeratzen dira, eta 2020ko maiatzaren 11n helbideratuko dira.

[Aurkibidera itzuli.](#)

- 69. Horrek esan nahi al du gero bi kuota ordaindu beharko ditudala aldi berean?**

Ez, segidan datozen kuota guztiak hilabete bat atzeratzen direlako. Hau da, apirilean martxokoa ordainduko da, maiatzean apirilekoa, eta, horrela, besteetan ere.



[Aurkibidera itzuli.](#)

70. Orduan, nire gerorapena, zatikapena edo akordio berezia aurreikusitako eran amaituko al da?

Ez. Aurreikusitakoa baino hilabete bat geroago amaituko da, hain zuzen ere hilabeteko atzerapenaren ondorioz.

[Aurkibidera itzuli.](#)

71. Ez dut nahi hilabete bat atzeratzea epemugen ordainketa, eta hilabete honetakoa ordaindu nahi dut. Egin al dezaket?

Bai, eta, horretarako, "Gipuzkoataria" atarian ordainketa gutun bat lortu dezakezu, edo zerga-bilketa zuzendariorde eta nagusian eskatu dezakezu, eta ondoren diru sarrera egin.

[Aurkibidera itzuli.](#)

72. Eta zer dira akordio bereziak?

Ordaintzeko baldintza bereziak dituzten akordioak dira, hain zuzen ere zergaduna hartzekodunen konkurtsoan dagoenean aurreikusita daudenak. Zergen Foru Arau Orokorren 168.4 artikuluan araututa daude.

[Aurkibidera itzuli.](#)

73. 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean gerorapena edo zatikapena ukatu didate, eta hilabete bat eman didate zorra ordaintzeko. Noiz arte ordaindu dezaket?

2020ko ekainaren 1era arte.

[Aurkibidera itzuli.](#)

4.2. Zatikapenen modalitate berria.

74. Onartu al da neurri berriren bat zerga zorrak zatikatzeko?

Bai. Mugak handitu dira zatikapenak bermerik gabe, hau da, abal, bahi edo hipoteka eratu gabe, emateko.

[Aurkibidera itzuli.](#)

75. Gehienez zenbateko zorra eskatu daitekeen zatikatzeko?

300.000 euroraino, zatikatu beharreko zor guztiengatik.

[Aurkibidera itzuli.](#)

76. Zer baldintza ditu zatikapen honen ordainketak?

Zorraren %20 zatikapena eman aurretik ordaindu behar da, eta gainerakoa 2 urtean gehienez.



[Aurkibidera itzuli.](#)

77. Zer gertatzen da zorra 300.000 eurokoa baino handiagoa denean?

Kasu horretan, zatikapena eman aurretik, 60.000 euro ordaindu behar dira gutxienez, zatikatu beharreko zenbatekoak 300.000 euroko kopurua gainditu ez dezan.

[Aurkibidera itzuli.](#)

78. Zer egin behar dut horrelako zatikapen bat eskatzeko?

Bermerik gabeko zatikapenak eskatzeko araututa dagoen ohiko tramitazioa bete behar da, Zerga-bilketa Erregelamenduan jasotzen dena.

[Aurkibidera itzuli.](#)

79. Noiztik aplikatzen da 300.000 eurorainoko gehikuntza hori?

Gehikuntza hori martxoaren 14tik aurrera exijigarriak diren zerga zorrei aplikatzen zaie.

[Aurkibidera itzuli.](#)

80. Zatikapenean zehar berandutze interesik sortzen al da?

Bai, onartzen diren beste zatikapen guztietan bezalaxe.

[Aurkibidera itzuli.](#)

5. ZERGA PROZEDURAK.

5.1. Alderdi komunak. Izapide batzuen epeak luzatzea.

81. Zerga prozedurak, bertan behera geratu al dira?

Ez. Zerga prozedurak ez dira bertan behera geratu, baina epe batzuk luzatu egin dira COVID-19aren FDAn jasotakoagatik.

[Aurkibidera itzuli.](#)

82. Zer epe luzatu dira, eta noiz arte?

2020ko ekainaren 1era arte epe hauek luzatu dira:

- Administrazioak egindako errekerimenduei erantzuteko epeak.
- Enbargo eginbideei erantzuteko epeak.
- Zerga ondorioak dituzten informazio eskaerei kasu egiteko epeak.
- Alegazioak aurkezteko epeak.



- Entzute izapidea egiteko epea.

Epe horiek hurrengo galderan aurreikusitako prozeduretan luzatu dira.

[Aurkibidera itzuli.](#)

83. Zein prozeduratan eragiten du epeak luzatzeak?

Guztietan. Prozedura horiek honako hauek dira, zehazki:

- Tributuak aplikatzeko prozedurak (kudeaketa, ikuskapen eta zerga-bilketa prozedurak eta betebeharrak formalekin lotutakoak)
- Zehapen prozedura.
- ZFAOren V. tituluko berrikuspen prozedurak.
- Zerga araudian ezarrita dagoen beste edozein prozedura.

[Aurkibidera itzuli.](#)

84. Beti luzatzen al dira epeak?

Ez. Epeak luzatu daitezten, beharrezkoa da hauetako baldintza bat gertatzea:

- Epeak ez egotea amaituta 2020ko martxoaren 14an, edo
- Epeak 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzea.

[Aurkibidera itzuli.](#)

85. Zer gertatzen da 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarteko epean erantzun behar den zerga prozedura batean edo enbargo eginbide batean zergapeko batek honako hauetako bat jasotzen badu Administrazioetik?: errekerimendu bat, zerga ondorioak dituen informazio eskaera bat, alegazioak aurkezteko epea hasi izanaren komunikazioa, edo entzute izapidea hasi izanaren komunikazioa.

Kasuan kasuko izapidea egiteko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da.

Dena den, izapidea egiteko eman zaizun epea 2020ko ekainaren 1etik harago badoa, azken hori nagusituko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

86. Posible al da adierazitako izapideak emandako epean betetzea? Eta zer gertatzen da orduan?

Bai. Ulertzen da izapidea ondorio guztietarako bete dela.

[Aurkibidera itzuli.](#)



5.2. Alderdi komunak. Administrazioak egindako behin-behineko likidazioak ordaintzeko epeak luzatzea.

87. COVID-19ari buruzko FDAk ordainketa jakin batzuk egiteko epeak luzatu ditu. Zeintzuk?

Administrazioak (Kudeaketak edo Ikuskaritzak) behin-behineko likidazio bat jakinarazten digunean ematen dizkigun epeak. Ordainketa egiteko epea hilabete batekoa izaten da, likidazioa jakinarazten denetik aurrera, eta FDAk 2020ko ekainaren 1era arte luzatu du.

Beste ordainketa batzuetan ere luzatu dira epeak, premiamenduzko probidentzietatik (ikus [100](#), [101](#) eta [102](#). galderak) edo zehapenetatik (ikus [113](#), [114](#) eta [115](#). galderak) datozenetan, esate baterako.

[Aurkibidera itzuli.](#)

88. Ogasunak behin-behineko likidazio bat jakinarazi dit, eta hilabete bat daukat zorra ordaintzeko. Ordaintzeko epea luzatu al da?

Bai. Epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da, kasu hauetan:

- Ordainketa egiteko epea 2020ko martxoaren 14tik harago amaitzen denean.
- Ordainketa egiteko epea 2020ko martxoaren 14tik harago hasten denean. Hala ere, zerga araudi orokorra aplikatuta, ordainketa egiteko epea 2020ko ekainaren 1etik harago badoa, ordaintzeko azken eguna jakinarazitako likidazioan ageri dena izango da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

89. Ogasunak behin-behineko likidazio bat jakinarazi dit 2020ko ekainaren 1etik aurrera, eta hilabete bat eman dit zorra ordaintzeko. Ordaintzeko epea luzatu al da?

Ez. Ordainketa egiteko epea jakinarazpenean adierazten dena izango da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

5.3. Alderdi komunak. Iraupena, iraungipena eta preskripzioa.

90. 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarteko epea nola konputatzen da zerga prozeduren ondorioetarako?

Ez da konputatuko zerga prozeduren gehieneko iraupenerako, ezta haien iraungipen eta preskripziorako ere.

Dena den, bitarte horretan zehar Administrazioak ezinbestekoak diren izapideak bultzatu, agindu eta egin ditzake.

[Aurkibidera itzuli.](#)

91. Epe hori ez konputatzeak berdina eragiten du zerga prozedura guztietan?

Bai, guztietan. Prozedura horiek honako hauek dira, zehazki:



- Tributuak aplikatzeko prozedurak (kudeaketa, ikuskapen eta zerga-bilketa prozedurak eta betebeharrak formalekin lotutakoak)
- Zehapen prozedura.
- ZFAOren V. tituluko berrikuspen prozedurak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

92. Epeak ez du konputatzen preskripzioaren ondorioetarako. Zein preskripziori eragiten dio?

ZFAOren 65., 65 bis, 193. eta 194. artikuluetan aurreikusitakoak:

- 65. artikulua: preskripzio kasu orokorrak.
- 65 bis artikulua: egiaztatu eta ikertzeko eskubidea preskribitzea.
- 193. artikulua: zerga zehapenak ezartzeko eskubidearen preskripzioa.
- 194. artikulua: zerga zehapenen ordainketa exijitzeko preskripzioa.

[Aurkibidera itzuli.](#)

93. 2020ko urtarrilaren 1ean, 6 hilabetera iraungitzen den prozedura bat abiatu zuen Administrazioak. Nola eragiten dit?

Prozedura ez da iraungiko 2020ko ekainaren 30ean, 2020ko martxoaren 1etik ekainaren 1era bitarteko epea ez baita konputatzen (80 egun natural). Beraz, iraungipena gertatuko da 6 hilabete + 80 egun natural betetzen direnean (2020 irailaren 19an, egun baliogabea denez, hurrengo egun baliogabea luzatuko, hau da, 2020ko irailaren 21era).

[Aurkibidera itzuli.](#)

5.4. Interesdunak eskatuta hasitako prozedurak.

94. Zergadun bat naiz eta zerga prozedura bat abiatu nahi dut. 2020ko martxoaren 1etik ekainaren 1era bitartean amaitzen da horretarako epea. Noiz arte abiatu dezaket prozedura?

Prozedura abiatzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da. Izan ere, interesdunak eskatuta hasten diren prozeduren epemugak 2020ko martxoaren 1etik ekainaren 1era amaitzen diren kasuetan, horiek abiatzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

95. 2020ko martxoaren 1etik ekainaren 1era bitarteko aitorpen eta autolikidazioen kasuan, 2020ko ekainaren 1era arte ere luzatu al da epea?

Kasuen arabera. Dena den, aitorpen eta autolikidazioen aurkezpenak badu berriazko erregulazio bat, ohiko galdera hauen [2. apartatuan](#) zehazten dena.

[Aurkibidera itzuli.](#)



96. Ba al du horrek eraginik errekurtsioak edo erreklamazioak aurkezteko epeetan?

Kasu honetan, bai. Epe horiek ere luzatu egin dira. Hala ere, galdera horren erantzuna hurrengo galderan ematen da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

5.5. Errekurtsoak eta erreklamazioak.

97. Likidazio, egintza edo ebazpen baten jakinarazpena jaso dut, eta haren aurka berraztertze errekurtsioa jartzeko edo FAEARI erreklamazioa aurkezteko epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen da. Zer epe daukat errekurritzeko?

2020ko ekainaren 1era arte.

Dena den, likidazio, egintza edo ebazpenean ematen den epea ekainaren 1etik harago badoa, errekurritzeko epea likidazio, egintza edo ebazpenean ageri dena izango da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

5.6. Premiamenduzko prozedura.

98. Premiamenduzko prozedura bat hasita daukat. Eragiten al dit COVID-19aren FDAk?

Bai, epe batzuk 2020ko ekainaren 1era arte luzatu direlako. Dena den, 2020ko ekainaren 1era arte, Administrazioak ezinbestekoak diren tramiteak egin ditzake.

[Aurkibidera itzuli.](#)

99. Zer epe luzatzen dira 2020ko ekainaren 1era arte, premiamenduzko prozedura batean?

Hurrengo galderetan argitzen diren ordainketa epe batzuez gain, honako hauek ere luzatzen dira 2020ko ekainaren 1era arte:

- Errekerimenduei erantzuteko epeak.
- Enbargo eginbideei erantzuteko epeak.
- Zerga ondorioak dituzten informazio eskaerei kasu egiteko epeak.
- Alegazioak aurkezteko epeak.
- Entzute izapidearen epeak.

[Aurkibidera itzuli.](#)

100. Ogasunak premiamenduzko probidentzia bat jakinarazi dit, eta hilabete bat eman dit zorra ordaintzeko. Ordaintzeko epea luzatu al da?

Bai. Epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da, kasu hauetan:

- Ordainketa egiteko epea 2020ko martxoaren 14tik harago amaitzen denean.



- Ordainketa egiteko epea 2020ko martxoaren 14tik harago hasten denean. Dena den, ordaintzeko epea 2020ko ekaiaren 1etik harago badoa, ordaintzeko azken eguna premiamenduzko probidentziaren jakinarazpenean ageri dena izango da.

Bitarte horretan ordainduko den premiamenduzko erretegia %15 izango da (murriztua).

[Aurkibidera itzuli.](#)

101. Ogasunak premiamenduzko probidentzia bat jakinarazi dit 2020ko ekainaren 1etik aurrera, eta hilabete bat eman dit zorra ordaintzeko. Ordaintzeko epea luzatu al da?

Ez. Ordainketa egiteko epea jakinarazpenean adierazten dena izango da.

Bitarte horretan ordainduko den premiamenduzko erretegia %15 izango da (murriztua).

[Aurkibidera itzuli.](#)

102. Ogasunak erantzukizuna deklaratzeko erabaki bat jakinarazi dit, eta borondatezko aldi ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 1etik ekainaren 1era bitartean amaitzen da. Zer epe hartu behar da kontuan ordainketa egiteko?

Ordaintzeko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

103. Ba al du Ogasunak nire ondasun higiezinaren gainean dauden bermeak exekutatzeko ahalmenik?

Ez. 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean ezin du horrelakorik egin.

[Aurkibidera itzuli.](#)

104. Ba al du Ogasunak bermeak exekutatzetik higiezinak ez diren ondasunen gainean?

Printzipioz bai, baina ezinbesteko exekuzioak izan behar dute beti.

[Aurkibidera itzuli.](#)

105. Enkanteak egin al ditzake Ogasunak?

Ez. 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean ezin du horrelakorik egin.

[Aurkibidera itzuli.](#)

106. Enbargo eginbide bat jaso dut, eta erantzuteko epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartekoa da. Ba al du eraginkortasunik enbargo eginbideak?

Enbargo eginbidea guztiz eraginkorra da hasieratik bertatik. Erantzuteko epea da aldatzen dena, 2020ko ekainaren 1era arte luzatu baita.

[Aurkibidera itzuli.](#)

107. Enbargo eginbide bat jaso dut, eta erantzuteko epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartekoa da. Noiz arte erantzun dezaket?



2020ko ekainaren 1era arte.

[Aurkibidera itzuli.](#)

5.7. Ikuskapen prozedura.

108. **Duela gutxi, ikuskapen prozedura baten hasiera jakinarazi da, eta lehen agerraldia datozen egunotan izango dela ezarri da jakinarazpenean.**

Gauden zirkunstantziak kontuan hartuta, ez da komeni bisita horiek egitea, ez Ikuskaritzaren bulegoetan ez zergapekoarenetan.

Hasierari buruzko komunikazioan aktuarioaren posta edo telefono bat ageri bada, zergadunak badu aukera aktuarioarekin hitz egin eta bisita atzeratzeko. Zergapekoak nahi badu, hasierari buruzko komunikazioan eskatzen den dokumentazioa egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu dezake, eta 2020ko ekainaren 1era arte egin dezake hori. Alde horretatik, kontuan izan behar da ezen, FDAk 4.2 artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, zergapekoak epe hori amaitu baino lehen aurkeztu dezakeela eskatzen zaion dokumentazioa eta informazioa, eta, kasu horretan, izapidea une horretan joko dela betetzat.

Zergadunak ikuskapen jarduketak jarraitzeko eskatzen badu, eta zirkunstantzia hori idatziz jaso bada, jarduketa horiek oztoporik gabe egingo dute aurrera. Kasu horretan, zabalduko osasun neurriak betetzen direla bermatuko litzateke, eta komunikatzeko garaian bitarteko elektronikoak erabiliko lirateke lehentasunez. Hori guztia behar bezala diligentziaz gotea eragotzi gabe.

[Aurkibidera itzuli.](#)

109. **Ikuskapen prozedura hasita zegoen, eta eginbide bat edo gehiago formalizatuta zeuden. Posible al da zergadunari dokumentazio berria eskatzea bitarteko elektronikoak erabiliz?**

FDA indarrean jarri denetik 2020ko ekainaren 1era arte, malgutu egin da zergapekoek izapide berriak egitea. Eta arrazoa da denbora tarte hori ez dela konputatuko prozeduren gehieneko iraupenaren ondorioetarako.

Hortaz, bakarrik egingo dira behar-beharrezkoak diren izapideak eta zergadunaren adostasuna esplizituki jaso dutenak

[Aurkibidera itzuli.](#)

110. **2020ko martxoaren 14tik aurrera, posible al da errekerimenduak egitea?**

Bai. 2020ko martxoaren 14tik aurrera jakinarazitako errekerimenduak 2020ko ekainaren 1era arte erantzun daitezke, salbu eta zergapekoak borondatez erantzutea erabakitzen duenean; horrelakoetan errekerimendua betetzat joko da.

Beraz, izaera orokorrean, Administrazioak saihestuko du errekerimendu berriak egitea. Salbuespen gisa, baloratuko du zer kasutan egin behar dituen horrelako errekerimenduak, egungo egoeraren arabera eta ezinbesteko izaera dutela kontuan hartuta.

Adibidez: nazioarteko errekerimenduak bidali litzake banku entitateetara edo organismo publikoetara. Baina salbuespeneko egoera kontuan hartuta, enpresaburu edo profesionalen ez zaie errekerituko



pertsona edo entitateei buruz informatzeko, non eta zergaduna ez den ados agertzen tramite horiekin. Nolanahi dela ere, errekerimenduei erantzuteko emango den epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

111. 2020ko martxoaren 14a baino lehen entzute izapide bat ireki da, eta aktak sinatzeko eguna laster iritsiko da.

FDAk luzatu egin du entzute izapidearen epea, eta 2020ko ekainaren 1ean amaitzen da.

Dena den, zergadunak, nahiz eta baduen aukera epea 2020ko ekainaren 1era luzatzeko, alegazioak aurkez ditzake, eta hala egiten badu, izapidea egindakotzat joko da.

Gainera, 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitarteko epea ez da konputatuko ikuskapen prozeduraren gehieneko iraupenaren ondorioetarako.

Horren ondorioz, aktak 2020ko ekainaren 1a baino lehen sinatu daitezten, ezinbestekoa izango da zergadunak adostasuna ematea izapideari.

Adostasun akten kasuan, Ikuskaritzako Zuzendariordeak beharrezko neurriak hartuko ditu, eta izapideak arinduko, aktak zergapekoaren adostasuna aintzat hartuta sinatu daitezten.

Desadostasun akten kasuan, akta horiek izaera berezia izango dute, eta izapide hori egiteko ezinbestekoa izango da zergadunak adostasuna ematea.

Edozein kasutan ere, kontuan izan behar da ezen aktak alarma egoeran sinatzeko garaian, nahitaezkoa izango dela zabaldu diren osasun neurriak betetzea.

[Aurkibidera itzuli.](#)

112. Ireki al daiteke ikuskapen prozeduraren entzute izapidea?

Izaera orokorrean, entzute izapidea ez da irekiko, non eta zergadunak edo behar bezala baimendutako ordezkariak ez duen esplizituki edo moduan dokumentatua adierazten izapide horrekin ados dagoela.

Zergadunak edo behar bezala baimendutako ordezkariak adostasuna ematen badio izapide horri, entzuna izateko epea 2020ko ekainaren 1era luzatuko da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

5.8. Zehapen prozedura.

113. Ogasunak zehapen bat jakinarazi dit, eta hilabete bat daukat hura ordaintzeko. Ordaintzeko epea luzatu al da?

Bai. Zehapenak ezin dira exijitu irimoak izan arte. Berraztertze errekurtsioa aurkezteko edo FAEari erreklamazio bat jartzeko epea ekainaren 1era arte luzatu denez, zehapena ezin da exijitu data hori iritsi arte.

[Aurkibidera itzuli.](#)



114. Ogasunak zehapen bat jakinarazi dit, eta hilabete bat daukat zorra ordaintzeko. Berraztertze errekurtsioa edo erreklamazioa aurkeztuta daukat. Luzatu al da ordaintzeko epea?

Bai, baina zerga arloko arau orokorrak aplikatuta, ez COVID-19ari buruzko FDA kontuan hartuta.

[Aurkibidera itzuli.](#)

115. Ogasunak zehapen bat jakinarazi dit, eta hilabete bat daukat zorra ordaintzeko. 2020ko ekainaren 1a iritsi da, eta ez dut aurkeztu ez berraztertze errekurtsorik ez FAEArekiko erreklamaziorik. Zehapena ordaindu behar al dut?

Bai. 2020ko ekainaren 1a behin iritsita berraztertze errekurtsorik edo erreklamaziorik ez baduzu aurkeztu, zehapena irmoa da eta berehala ordaindu behar duzu (2020ko ekainaren 1ean, beranduenik).

[Aurkibidera itzuli.](#)

116. Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiak zigor proposamen bat jakinarazi dit eta alegazioak egiteko epe bat jarri du 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean. Ohartarazi dit alegaziorik ez badut aurkezten zigor proposamena likidazio bihurtuko dela eta ordaindu beharko dudala. Horretan nola eragiten dit foru dekretu arauak?

Lehendabizi, alegazioak egiteko epea 2020ko ekainaren 1era arte zabalduko da. Beraz, data horretara arte egon zaitezke zigorra ordaindu gabe.

Epe horretan, alegazioak aurkeztu ditzakezu, eta kasu horretan ez duzu ordaindu beharko harik eta Administrazioaren komunikazioa jaso arte.

Baina, ekainaren 1aren aurretik ez baduzu alegaziorik aurkezten, jakinarazpen berri bat egiteko beharrik gabe zigor proposamen hori likidazio bihurtuko da eta berraztertze errekurtsioa edo Foru Auzitegian erreklamazioa aurkezteko epea irekiko zaizu. Epe hori hilabetekoa da, hau da, uztailaren 1era bitartekoa.

Uztailaren 1aren aurretik errekurritzen baduzu, zigorra automatikoki etenda geldituko da.

Uztailaren 1aren aurretik ez baduzu errekurritzen, berriz, zigorra uztailaren 1a baino lehen ordaindu beharko duzu.

[Aurkibidera itzuli.](#)

117. Aurreko kasuan bertan, zigorraren zorra ordaindu al dezaket epe horiek guztiak bukatu arte itxoin gabe?

Bai. Jakinarazpenarekin batera, ordainketa gutun bat jasoko zenuen. Ordainketa gutuna finantza entitate batera eraman dezakezu, eta zigorraren zorra ordaindu.

[Aurkibidera itzuli.](#)

118. Administrazioak 6 hilabeteko epea du egintza bat ematen duenetik haren ondorioz eratorritako zehapen prozedura hasten duen arte. Zer gertatzen da epe horretan?

Epe hori ere eten egin da martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean.

[Aurkibidera itzuli.](#)



6. UDAL ZERGAK.

119. OHZ (ondasun higiezinaren gaineko zerga). Nola eragiten du aurtengo kanpainan COVID-19ari buruzko FDAk?

2020. urteko OHZren zerga kuota ordaintzeko epea atzeratu egin da, eta 2020ko abuztuaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izango da.

[Aurkibidera itzuli.](#)

120. Zabaldu al da udaletako aldizkako jakinarazpen kolektiboko zorrak ordaintzeko borondatezko epea (trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, ur tasak, zabor tasak...)?

Printzipioz, COVID-19aren Foru Dekretu Arauan ez dira epe horiek zabaltzen. Dena den, udalak epe horiek aldatu ahal izango ditu ebazpen baten bidez. Nolanahi ere, komenigarria da informazio hau zure udalari eskatzea.

[Aurkibidera itzuli.](#)

121. COVID-19aren Foru Dekretu Arauan jasotako xedapenek udalei ere eragiten diete, ordaintzeko epeei, errekerimenduei erantzuteko epeei, berraztertze errekurtsioei edo erreklamazio ekonomiko-administratiboei dagokienez?

Bai. Begiratu dezakezu zer neurrietan eragiten dieten ohiko galdera hauen 5. atalean. Nolanahi ere, komenigarria da informazio hau zure udalari eskatzea.

[Aurkibidera itzuli.](#)

122. Nola eragiten die COVID-19aren Foru Dekretu Arauak udalek onartutako gerorapen eta zatikapenei?

COVID-19aren Foru Dekretu Arauak gerorapen eta zatikapenei buruz jasotakoa aplikagarria izango da, baldin eta udalak ez badu gerorapen eta zatikapenei buruzko erregulazio espezifikorik abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaz onartutako Zerga-bilketa Erregelamendua ordezkatzeko.

Baldin eta zure udalak erregelamendu horren ordezeko erregulazio espezifikoa badu, zure udalaren erregulazio espezifikoa aplikatuko zaie.

Horrelakorik ez badu, berriz, COVID-19aren Foru Dekretu Araua aplikatuko da, eta kasu horretan ohiko galdera hauen 4. atalean begiratu dezakezu gerorapen eta zatikapenei buruzko informazioa.

Nolanahi ere, komenigarria da informazio hau zure udalari eskatzea.

[Aurkibidera itzuli.](#)

123. Udal zergak aurkezteko eperen bat luzatze al da?

Bai, 2020ko ekainaren 1era arte luzatzen dira ez-aldizkakoak diren zenbait aitorten, batik bat hurrengo zergei dagokienez: ondasun higiezinaren gaineko zerga, katastroa eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga. Aitorten hauen zerrenda hurrengo bi galderetan zehazten da.

[Aurkibidera itzuli.](#)



124. Zein aitorten dira ez-aldizkakoak ondasun higiezin gaineko zergaren eta katastroaren arloan?

Nagusiki honako hauek:

- R-6 eredu. Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin landatarren titulartasunaren aldaketa.
- R-7 eredu. Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin landatarren bereizketa, zatiketa eta elkarketa.
- U-1 eredu. Ondasun higiezin gaineko zerga. Salbuespen eta hobari eskaera
- U-4 eredu. Ondasun higiezin gaineko zerga. Aitorpena obra berriagatik, zabalkuntzagatik, birgaitze osoagatik edo zatiketa horizontalarengatik
- U-6 eredu. Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin hiritarren titulartasunaren aldaketa.
- U-7 eredu. Ondasun higiezin gaineko zerga. Ondasun higiezin hiritarren bereizketa, zatiketa eta elkarketa.

[Aurkibidera itzuli.](#)

125. Zein aitorten dira ez-aldizkakoak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren eta katastroaren arloan?

Nagusiki honako hauek:

- 840 eredu. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: jardueren aitordpena.
- 841 eredu. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: jarduerari zeharka lotutako jardueraren aitordpena.

[Aurkibidera itzuli.](#)